



■ TURISMOA

Hernani bisitarien geltoki, Aste Santuan

Kaxko historikoa, sagardoa, mendi ibilbi-deak... Hernaniren xarma ezagutzera gerturatu dira Aste Santuan asko; lotara etorri dira batzuk, egunpasa besteak.

TURISMOAK gorako bidean jarraitzen du Gipuzkoan, eta hori nabaritu egin da Hernanin ere. Aste Santuko egun gorrietan bisitariak ez dute Hernani ahaztu. Batzuk bertan geratu dira lotan: Txintxua hotela eta Pardoiala nekazal turismoa esaterako, bete egin dira. Beste batzuk berriz, herria ezagutu eta bisitatzeko gogoz etorri dira. Aste Santuan eskainitako Turismo Planek ere, harrera ona izan dute aurten. /3

■ ELIZA

Lau meza gaur, Pazko igandean

Erramu igandearekin hasi zituzten Hernaniko kristauek Aste Santuko ospakizunak. Gaur, Pazko igandearekin bukatuko dira. Lau meza izango dira, Hernaniko lau elizetan: 09:00etan Agustinetan, 10:00etan San Antonion, 11:00etan San Jose Langilean, eta 12:00etan San Joan Bataiatzailean. /2

■ KIROLDEGIA

Arratsaldean itxita, gaur eta bihar

Aste Santuko oporrak direla eta, Kiroldegia goizez bakarrik dago irekita. Gaur eta bihar beraz, zabalik egongo da goizeko 08:30etatik eguerdiko 13:00etara. ||

■ UDAL LIBURUTEGIA

Artista liburu bat egin nahi al duzu?

Artista liburu bat da, artista batek bere marrazkiekin, eskulturrekin, poesiekin, pentsamenduekin edo gogoko dituen irudiekin egiten duen liburua. 8-9 urte bitarteko neska-mutilei zuzenduta, Udal Liburutegiak Artista liburu tailerra antolatu du asteartetik ostiralera. Udal Liburutegian eman behar da izena. ||



Liztor asiaticoa ikertzen jarraitzen dute erlezainek

LIZTOR asiaticoaren fenomeno bilatu nahian ikerketa bat egiten ari da EHUKo ikasle talde bat. *Vespa Velutinaren* inguruko tesia egin nahi dute eta helburua da liztorraren feromona bat lortzea; EHUK diruz

lagundu du azterketa. Udazken aldean hasiko dute ikerketa eta Julian Urkiola eta Agustin Zabalaren erlategietan egongo dira. Hernaniko Kronika Julian Urkiolarekin elkartu da, ikerketaren nondik norakoak

argitzeko. Erlezainen Lehendakariaren esanetan, liztor asiaticoaren kontrako borroka honek luze iraungo du: «bide berriak probatu behar ditugu, baina errezeloa daukat luzerako joango dela borroka hau». 6-7

GAUR KRONIKAN

Laburrak /2

Jasota Bezala:

Jorge Piris Fernandez /2

Eskelak /2

Hiru sari Hernanira,

Euskadiko Txapelketan /8

ARALAR TABERNAKO

XXX. MUS TXAPELKETA

Izena emateko epea luzatu dugu, apirilaren 25era arte daukazu aukera!

1. SARIA Izena ematean bildutako diruaren %50 Garaikurra, txapela eta oparia	3. SARIA Bildutako diruaren %15 Garaikurra eta oparia
2. SARIA Bildutako diruaren %25 Garaikurra eta oparia	4. SARIA Bildutako diruaren %10 Garaikurra eta oparia

SARI BANAKETA: Sarituz gain, hurrengo 4 bikoteak gobidatuta daude Errioxako Ardo Bodega batera.
IZENA EMATEA: Bikoteko 50 € EPEA: Apirilaren 25a

PEÑA

Okindegia - Janarilenda

Eguneroko zure beharrei erantzuteko,
Kale Nagusian gaudia.

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

tripontzi
taberna

PINTXOKI BIZIOI ENTSELEDEI **BOIXTAN PLATER BORBINTOXI**

ZATOZ
DASTATZERA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI
943 555 724

I ELIZA ASTE SANTUA

Geldialdiz geldialdi, Gurutze Bidea egin zuten Santa Barbaran

Pazko igandeko lau meza emango dituzte gaur eguerdira bitartean, lau elizetan.

PLAZATIK atera, eta Santa Barbarako tontorrera bidean, 14 geldialdi egin zituzten ostira-lean, Gurutze Bidean parte hartu zuten herritarrek. Jesussek Kalbariora bidean, gurutz-hiltzatua izan aurretik egindako bidea eta geldiuneak ekarri zituzten gogora. Arratsaldean, mezak izan ziren herriko lau elizetan.

Pazko igandea, gaur Erramu igandearekin hasi ziren Aste Santuko elizkizunak, eta gaur bukatuko dira, Pazko Igandearekin, Jesus berpiztu zen egunarekin. Hernaniko lau elizetan izango dira mezak: 09:00etan Agustinetan, 10:00etan San Antonion, 11:00eta San Jose Langilean, eta 12:00etan San Joan Bataiatzailean. II



Dozenaka hereniar elkartu ziren atzo, Gurutze Bidea egiteko.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

JUAN SARASOLA LASA
Atzo hil zen Hernanin, 65 urte zituela

Mila esker Juanito guztion laguna gizona, aita eta aitona kuttuna zure bizi-pozakin gure alaitasuna munduan ibilita bihotzean duguna



Emaztea: Miren Etxeberria; semeak: Ion eta Aitziber, Gaizka eta Maitane; biloba: Xare; anai-arrebak: Antonita eta Felipe, Joxe eta Marimar, Eugeni, Maria Jesus eta Inazio; ezkon anai-arrebak: Felipe eta Mari Sol, Elias eta Aurora, Roberto eta Angeli eta Lina; eta gainerako ahaideek.

Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da, gaur, igandea, gaueko 21:00ak arte.

MARTIN ZABALEGUI ARRAYAGO
Herenegun hil zen, 77 urte zituela

- Goian Bego -

Emaztea: Maria Pilar Vazquez Tolosa; seme-alabak: Xabier eta Josune, Mikel eta Kris, Olatz eta Tomas; bilobak: Paul, Maria, Ander, Malen, Ibon eta Eneko; ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzetzela **ETZI, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.


Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

Helbidea: Orkolaga, 1
OHARRAK: Gorputza HERNANIKO ORBEGOZO EHORZKETA TANATORIOAN egongo da gaur, igandea, eguerdiko 13:00ak arte.

MARTIN ZABALEGUI ARRAYAGO
- Goian Bego -

Ezustean joan zara gurekin agurtu gabe. Beti izango zara, Martin, lagun paregabe.

ALTUNA-GARIN SENDIA



Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

MARTIN ZABALEGUI ARRAYAGO
- Goian Bego -

Beti egongo zara gurekin zuk gogoan gaitzazulako eta guk gogoan zaitugulako

TXANTXANGORRIKO AFARI LAGUNAK




Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

JUAN SARASOLA LASA

Beti izango zaitugu gogoan.

SANTA KRUZ-OTXOTORENA-UGALDE FAMILIA




Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

MARTIN ZABALEGUI ARRAYAGO
- Goian Bego -

Argi bat itzali da hemen, lurrean, berri bat piztu da han, zeru ederrean, beti jarraituko duzu zure alaitasunarekin gure bihotzean.

AURRERA KOADRILA




Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

MARTIN ZABALEGUI ARRAYAGO
- Goian Bego -

Atsegina izan da bide tarte bat elkarrekin egitea.

KOXKA ELKARTEA



Hernanin, 2014ko apirilaren 20an

FUNERARIA ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala **HERNANI**
Latsunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

■ ASTE SANTUA



Hernaniko erdigune historikoa ezagutu ondoren, tren berdea hartu eta sagardotegietatik buelta egin zuten atzo.

Aste Santuan ere bisitariek ez dute ahaztu Hernani

Txotx denboraldian zehar 130 bisita gidatu egin dira Hernanin, eta Aste Santuan ere bisitaririk ez da falta Hernanin. Hernaniko aterpeak beteta daude.

ASTE Santuan hernaniarrak kanpora ateratzen dira, baina badira Hernanira etortzen diren kanpotarrak ere. Txotx denboraldian bisitari asko izan da, baina Aste Santuan ere bisitariek ez dute ahaztu Hernani. Pardiola nekazal turismoa eta Txintxua Hotela bete egin dira, ia urtero bezala, eta Pazko Astean kontua lasaitu egingo dela diote.

Bisita gidatuek eskari haundia

Aste Santuko eskaintzan bete betean harrapatu dugu Maria Eizagirre, Hernaniko Turismo Bulegoko langilea. Bisita gidatuek aurten sekulako tiradizoa izan dute, eta 130 inguru egin omen dituztela adierazi dio Kronikari. «Ia astebururo izan ditugu. Kanpotik etortzen den jendeak, normalean sagardotegira joateko plana daukatenak, aurretik animatu eta bisita gidatua egiten dute», dio Eizagirrek. Trenean ibili eta

Maria Eizagirre, turismo langilea: «Adibidez, kanpotarrak harrituta geratzen dira Hernaniko Kaxkoko Karkaba zaharrarekin»

«Sagardoaren kulturak bisitari asko erakartzen du. Sagarrak eta sagardoak herri honetan izan duen garrantziak interes haundia pizten du»

kata gidatua egiten dutenak ere dezente dira.

Jendeak oso gustora egiten du bisita gidatua, eta harrituta geratzen dira Hernaniko Kaxkoarekin eta historiarekin, «Kaxkoko zenbait jauregik atentzioa ematen die, eta baita harmarriek ere. Beste gauza bat bada, kanpotarrak harrituta geratzen direna, Kaxkoko Karkaba zaharra». Jakina denez, Kardaberaz eta Kale

Nagusiaren artean beste kale bat bazen lehen, eta oraindik ere hortxe dago. Baina kurio-soa bada ere, hernaniarrak harritzen dira gehiena Hernaniko Kaxkoarekin, «hernaniarrak ez dakite zenbateko balioa duen Kaxkoak».

Sagardoaren kulturak erakartzen du jendea Hernanira, Eizagirreraren esanetan, «lehen-go legeak nola ziren azalduta kanpokoak eta bertakoak ha-

rritzen dira. Garai batean sagarrondo bat haustea heriotza zigorrarekin ordaintzen zen. Pentsa ze toki hartzen zuen sagardoak gure herrian».

Bisita gidatuz gain, aurten Tren Berdeak ere arrakasta izan du. Aurten trenean gehien ibili direnak Hernaniko gazteak izan omen dira, euro baten truke buelta egin dutenak.

Kataluniarra aurten ere, inor baino gehiago

Aurten ere Aste Santuan Kataluniatik etorri da jende gehiena. Madrildarrek ere asko direla adierazi diote Kronikari Pardiolak eta Txintxuak, baina badira beste herrialdeetakoak ere. Txintxua Hotelean Castilla la Manchako jendea ere badaukate, eta baita Zaragozako ere. Aste Santua ona izaten da Hernanin, eta hau bukatuta, espero dute udara iazkoren antzekoa. Txintxuara Holanda eta Frantziatik ere etorri omen ziren iaz, besteak beste. ||

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

Baporetze askearen alde

Dakizuen bezala, Europar Batasunak zigarro elektronikoaren erabilera arautu nahi du Tabakoaren Legediaren barruan. Ezarri nahi dituzten zentzugabeko debekuek gaur egungo erabilerarekin bukatuko lukete. Tabakismoaren arazoari soluzioa emateko irtenbidea da askorentzat bapeoa, eta hor ez dute inongo parterik instituzioek: gobernuak, osasun arduradunek, farmaziako lobbiek, tabako industriek, eta are gutxiago, komunikabideek... Bapeoak funtzionatu egiten duenez, etsipena da nagusi.

Intuizioari kasu eginez gero, zigarro elektronikoak tabakoarekin konparatzeak zerga igoera ekarriko du. Gure ustez, erregulazioaren ondorioz, lobbie haundiak bakarrik izango dira gai eskatzen diren baldintzei aurre egiteko: farmaziako industriak eta tabakalerak. Aldiz, denda fisikoei eta online saltzen dutenak itxi beste biderik ez dute izango.

Bide bakarra geratzen zaigu neurri zentzugabe eta injustu hauei aurre egiteko: bapeo askearen aldeko iniziatiba europarrak hasi duen firma bilketarekin bat egin; EFVI (Iniciativa Europea por el Vapeo Libre) eta ICE (Iniciativa Ciudadana Europea). Helburua da 1.000.000 firma jasotzea azaroaren 25a baino lehen. Hernanin apirilaren 26an jarriko dugu firmak biltzeko postua, Kale Nagusian, 10:00etatik 14:00etara. Zuen kolaborazioaren zain izango gara. Prozedura honi esker, legea berraztertzeak eskatuko diogu Europako Parlamentuari. Link interesgarriak:

www.vapeando.com/web
www.yovapeador.blogspot.com
www.e.volutas.com

Jorge Piris Fernandez

Sinatzeko:



INDUSTRIA

«IQU, hasieran, familiako enpresa bat bezalakoa zen»

Industrias Químicas del Urumea, IQU enpresa izan zena, 2008an itxi zuten, eta 2014ko martxoan hasi dira botatzen. Angel Royok eta Lurdes Urangak enpresa jaiotzen ikusi zuten, 1966an. Mariasun Ezponda 1968an sartu zen eta Urangarekin batera aritu zen, 40 urtez, 2008an itxi zuten arte.

Nola hasi zen IQU?

ANGEL ROYO: Eduardo Iglesias Hernandezen ideia bat izan zen. Bera kimikoa zen. Esperientzia zeukan; fundizioan ibilia eta abar... eta ikusi zuen aukera zegoela fabrikatzeko produktu bat, zaila zena merkatuan bilatzen: erretxin fenolikoa. Hori lortzen zen fenola eta formola nahastuta, batez ere.

Erretxin hori hondarrari nahastuta lortzen zen produktu bat, fundizioetan oso estimatua zena. Beroari ondo eusten zion eta fundizioetako moldeak egiteko balio zuen.

Iglesiasek ideia izan zuen, baina akzionista gehiago ere baziren...

A.R.: Iglesias bera, eta beste sei akzionista izan ziren.

Non hasi zineten?

A.R.: Karabelen, Gibelbex-en, bakailao gibelaren olio egiten zuen enpresan. IQUko edifikazioa egin aurretik. Ni eta Javier Gerrikagoitia hasi ginen.

Baina IQU dagoen tokira berehala pasa zineten, ezta?

A.R.: enpresa 1965ean sortu zen, eta IQUko planta 1966an inauguratu zen. Instalazio txiki batzuekin hasi ginen.

LURDES URANGA: inaurazio-ko egunean, 1966ko azaroan, 12 lagun geunden. Bedeinkazioa emateko garaian, apaiza bulegoetara igo zen, eta Iglesiasek esan zion: «Ez, ez. Honek (ofizinak seinalatuta) ez digu jaten emango, eta goazen behera, fabrikara, hura da-eta jaten emango diguna».

Hasiera hartan zenbat langile zineten?

L.U.: Ni hasi nintzenez, behean sei ari ziren. Juan Gascue (orainxe hil berri dena) enkargatu bezala, eta beste bost langile. Bi pertsona laboratorian, komertzial bat, eta gu biok (Lurdes eta



Mariasun Ezpondak eta Lurdes Urangak enpresa hasieratik bukaerara ezagutu zuten. Angel Royok hasierako urteak egin zituen bertan.

Angel) ofizinan.

Zer da erretxinez bildutako hondar hori? (arena prerevestida de resina)

A.R.: Erretxinez bildutako hondarra, hondar fin-fina zen, tenperatura oso altuak aguantatzen zituena. Fundizioetarako balio zuen, moldeak egiteko.

Zein da hondarraren lana fundizio batean?

A.R.: Hondarrak bero haundiarri eusten dio. Erretxinak forma ematen dio, eta moldean salda botatzen denean, ez da leheritzen, eta pieza osoa ateratzen da. Gero hondarra kendu, eta eskonbroetara. Eta pieza egina.

Beti materia prima fundizioetarako?

A.R.: Bai bai.

«Inaugurazioan, 1966an, apaiza bulegoetara igo zen, eta Eduardo Iglesiasek esan zion: «Ez, ez. Honek (ofizinak seinalatuta) ez digu jaten emango, eta goazen behera, fabrikara, hura da-eta jaten emango diguna»

MARIASUN EZPONDA: Hori da. Gero beranduago, fundiziorako bakarrik ez, beste lekuetarako

ere bai.

A.R.: Nik beti pentsatu izan dut, Eduardo Iglesias beti izan dela pertsona bat bista haundikoa. Hasieran fundizioetako behar hori ikusi zuelako. Baina ez zen hor geratu. Gero dibertsifikatzen joan zen, ikuspegia zabaldu eta gauza berriak bilatzen. Horrela, sektore bat gaizki zihoanean, besteek ateratzen zuten fabrika aurrera.

Eta hondar horri nola eman erretxin kapa hori?

L.U.: hondarra harrobietatik ekartzen zuten. Hondar berezia behar zuen. Hondar siliciosa zen, harrobietakoa. Fintasun ezberdinetakoak ekartzen ziren, gauza baterako edo besterako. Gasteiztik ekartzen zen.

A.R.: hondar hori, bere kantidadean sartzen zen mezkloran, eta han eransten zitzaion erretxina, beroan. Eta hori guztia erortzen joaten zen, behera, letxo edo ohe esaten genion pieza batera (3m x 1m) eta horrek azpian haize hotza zeukan, presioan. Eta hor hondarrak irakin egiten zuen, eta bertan hoztu. Eta hori zen hondarra, erretxinez bildutako hori. Eta zakueta.

Erretxina ere hor egiten zen ezta? Nola?

A.R.: eltze haundi batzuetan. Hor sartzen zen teknikoan lana. Fenola eta formola hor sartzen ziren, eta beste produktu gehiago ere bai, baina batez ere fenola eta formola. Tenperatura altuetara iristen zen hori,

eta bere temperatura batean eusten zitzaion, gehiago berotuz gero, erretxina gogortu egiten zelako.

Fenola eta formola esan duzue sartzen zirela.

Likidoak ziren, eta hortik erretxin bat ateratzen zen?

L.U.: likido lodi bat ateratzen zen, bai. Eta hori hondarrarekin nahasten zen.

Arriskua eta langileen segurtasun aldetik, batzuk diote ez zirela gauzak behar bezala egin...

L.U. eta M.E.: gu ez gara ardura hori geneukanak, baina bai, ardura zeukatenek asko insistentzen zutela segurtasun neurriak hartzearekin. Kontrolak oso maiz egiten ziren. Lehendik ere bai, eta alemanak sartu zirenean izugarri gogor jarri ziren gauza horiekin. Amiantoarekin lan egiteari ere besteek baino lehenago utzi genion. Errebisioak egitea beharrezkoa zen, eta norbait egin nahi ez bazuen, papera firmarazten zitzaion.

IQU, Bakelite, Hexion... nola izan zen eboluzioa?

L.U.: hasieran IQU zen, eta 1997 arte mantendu zuen izena. 1997tik Bakelite Ibérica izan zen, 2005ean Hexion, eta 2008ko uztailean 30ean itxi. M.E.: hala ere, 1989an dagoeneko Rürgers-werke AGren eskuetan zeuden akzio ia guztiak, nahiz eta hasierako izena mantendu. Rürgers-ek %98,8 zeukan, eta Eduardo Iglesiasenak ziren gainerako %1,2 horiek.

Fabrika asko aldatu al zen hasieratik?

L.U.: asko eboluzionatu zuen. Hasieran erretxin hori egiten zen, baina gerora erretxin ezberdin asko egiten hasi ginen, ez fundizioetarako bakarrik, beste gauza askotarako: abrasiboak, oihalgintzarako fibrak, egurgintza, aglomeratuak, automobiletako salpikaderoak, hegazkinak, eta noski, bakelitazko kazuiletako kirtenak eta abar.

Nora saltzen zen?

M.E.: hasieran Espainiako Estatura, baina gero, Portugal, Marruecos... gerora Frantzia eta Alemaniara ere bai. Eta azken-azken urteetan, dena globalizatu egin zen...

IQUk bazuen fama, langileak baldintza onetan lan egiten zutela ezta?

A.R.: hasiera hartan, arazo sozialik ez zen izan bat bera ere. Huelgak izan ziren, huelga politikoak. Eta hasieran ordaindu

egiten ziren huelga politikoak... gero ez, baina hasieran bai. M.E.: hasieran familiako enpresa bat bezalakoa zen.

Zenbat lagun izan zineten gehiena?

L.U.: 104 lagun inguru. Hernanin 70 inguru eta gainerakoak beste plantetan: Salcedon (Lantaron, Araba), Barcelonan eta Arcos de la Fronteran.

Itxitakoan zenbat zineten?

M.E.: Hernanin 40 lagun.

1993ko errestrukturazioan ere jende asko kalera joan zen...

L.U. eta M.E.: Bai. 1993a txarra izan zen, IQUko momenturik txarrenetakoa. Ordurako alemanen eskuetan zegoen fabrika, eta 90 langile zituen; horietatik 70 Hernaniko plantan, eta beste 20 Salcedon. Oso gogorra izan zen. Langileen %30 bota zuten.

1989an, zergatik erabaki zuten akzioak saltzea IQUko akzionistek?

A.R.: erosteko eskaintza bat iritsi zelako, seguru asko. M.E.: orduan %98,8 geratu zen Rürgers-werke AGen eskuetan. Europako Bakelite guztiak batera osatzen zuten enpresa hori.

Hasierako sozioen esku egon izan balitz oraindik martxan egongo al zen?

M.E.: seguru asko ez. Hemengo akzionistak adin haundia zuten, eta seme-alabek ez zuten jarraitu nahi. Akzionista horiekin bakarrik segiz gero, ez zen kapitalik eta aukerarik izango gero egin ziren erretxin horiek guztiak egiteko.

A.R.: kapital anpliaziorik egiteko ez zeukaten dirurik.

L.U.: Bakelitek hartu zuenean, European egiten ziren hainbat material hona ekarri ziren, eta horrek guri ere aukera asko ekarri zizkigun.

Asko antzeman al zenuten Bakelite sartzean, lan egiteko moduan-eta?

M.E.: Bakeliterekin, alemanekin, orokorrean ez hainbeste. Aldaketak izan ziren, kontrol aldetik eta: auditoria asko, kontabilitatea egiteko modu berriak ikasi... Controller figura bat jarri zuten, Bakeliteko errepresentantea zena, nolabait. Haiek helburu batzuk jartzen zizkiguten, eta guk helburu horiek bete egin behar genituen. Baina guk gestionatzen genuen enpresa.

Aldaketa gero etorri zen. Hexion amerikarra sartu zenean, orduan bai, antzeman genuen aldaketa. ■

«Hasiera hartan arazo sozialik ez zen izan bat bera ere»

«Eduardo Iglesiasek ikusi zuen aukera zegoela produktu bat fabrikatzeko, merkatuan gutxi zegoena: erretxin fenolikoa»

«Erretxin hori hondarrari nahastuta lortzen zen produktu bat, fundizioetan oso estimatua zena»

«Gero dibertsifikatzen joan zen, ikuspegia zabaldu eta gauza berriak bilatzen. Horrela, sektore bat gaizki zihoa-nean, besteek ateratzen zuten fabrika aurrera.»

«1993a txarra izan zen, IQUko momenturik txarrenetakoa. Ordurako alemanen eskuetan zegoen fabrika. Langileen %30 bota zuten.»

«Bakelitek hartu zuenean, European egiten ziren hainbat material hona ekarri ziren, eta horrek guri ere aukera asko ekarri zizkigun.»

«Ixteko arrazoi bezala anpliatzeko arazoak aipatu ziren, baina ez zen hori izan. Produkzioa interesatzen zitzairen, eta horregatik ez zuten itxi Salcedoko planta, tonelaje haundikoa zelako»



Joan den martxoaren 31n hasi ziren botatzen Hexion enpresa.

«Aldaketa gero etorri zen, Hexion sartu zenean»

Hexion enpresa amerikarrak 2005ean erosi zuen Bakelite Ibérica.

Eta Hexionek zer aldatu zuen?

M.E.: Hexion etorri zen eta gestioa bereganatu egin zuten. Tesoreria eraman, eta ardurak ziztuztenekin akordioak bilatu zituzten, beren postuak uzteko.

Zer lortu nahi zuen Hexionek horrekin?

M.E.: enpresaren gestioa berriak eramatea. L.U.: lehen probeedoreekin edo bezeroekin tratatuak geuk negoziatzen genituen, baina gero kondizioak beraiek jartzen zituzten. M.E.: programa informatikoa aldatu zuten, eta han lan egin behar zen, programa orokor bat, denok erabili behar genuena, eta nolabait dena komunikatuta zegoen. Ez zen erraza, eta azalpen haundirik ere ez zituzten eman. L.U.: 2005etik 2008ra lan egitea ez zen hain eroso izan guretzako.

«2005etik 2008ra lan egitea ez zen hain eroso izan guretzako»

Eta nola bukatu zenuten?

M.E.: jubilatu egin gintuzten. Gainera, nahiko baldintza onetan. Oraindik krisi hots haundirik ez zen, eta baldintza txukunak lortu genituen. Jubilazioa edo indemniazioak lortu ziren.

Ixtea zergatik erabaki zuten?

M.E.: anpliatzeko arazoak aipatu ziren, baina ez zen hori izan. Nik uste dut, azkenean kontrolatzen egon zirela ikusteko nola funtzionatzen zuten enpresa guztiek, eta arrazoi bategatik edo besteagatik erabaki zuten zein itxi behar zuten.

Salcedoko plantarekin segi egin zuten, hura tonelaje haundikoa zelako. Produkzioarekin bakarrik segi nahi zuten. ■

■ NATURA LIZTOR ASIATIKOA

EHUK laguntza eman dio ikasle talde bati, liztorraren feromona bilatzeko

Julian Urkiola eta Agustin Zabala hernaniarren erlategietan azterketak egingo dituzte, eta baita Oiartzungo beste erlategi batean ere. Urkiolak dio, luze iraungo duela liztor asiatiakoaren kontrako borrokak.

EHUko ikasle talde bat Hernanin ariko da ikerketa lan bat eginen, liztor asiatiakoaren (*Vespa velutina*) feromona bilatu nahian. Julian Urkiolaren eta Agustin Zabalaren erlategietan egingo dute ikerketa, udazken aldean hasita. EHUK diruz lagunduko du azterketa, urte bat baino gehiago iraungo duena. EHUko ikasle baten tesia da, eta talde bat osoa ariko da lanean.

Hernaniko Kronika Urkiolarekin bildu da. Erlezainen Elkarteko Lehendakaria pozik dago ikerketa hau dela-eta, baina hala ere, gauzak lasai hartu behar direla dio, borroka honek luze iraungo omen duelako.

Neiker eta EHU, feromonaren bila


Feromona bat bilatzea da erremediorik onena, itxura denez. Horretan ari da Neiker azken urteetan, eta orain EHUK ere bide berari heldu dio. «Helburua berdina da, baina uste dut metodoa aldatu egingo dutela».

Helburua, feromona lortu, eta hortik likido bat sortzea da, *Vespa velutina* bakarrik erakarriko duena. «Bakarrik» horri berebiziko garrantzia ematen dio Urkiolak. Berak dioenez, selektiboa izan behar du, bestelako intsektuak erakarriko ez dituen. «Guk ez dugu ezer beste zomorroen kontra. Tximeletak, elbiak, erleak, bertako liztorrak... horiek onak dira, eta gainera agente polinizatzaile gisan estimatu egin behar dira. Zerbait behar dugu liztor asiatiako bakarrik erakarriko duena, selektiboa, beste intsektuak pakean utziko dituen».

Eta hori oso zaila da. EHUko taldeak ikerketa bide berri batetik planteatu du. Ikusi egin beharko da emaitza.

Hainbat faktore, erremedioa luzatu dezaketenak

«Bide berriak probatu behar ditugu, baina errezeloa daukat luzerako joango dela borroka hau», dio Urkiolak. Hainbat arrazoi ditu erlezainen lehen-



Julian Urkiolak egunero xamar egiten die bisita bere erlauntzei, eta han jarritako tranpei. Aurten 64 liztor asiatiako harrapatu ditu tranpetan.

«Bide berriak probatu behar ditugu, baina errezeloa daukat luzerako joango dela borroka hau»

«Zerbait behar dugu liztor hau bakarrik erakarriko duena, selektiboa, beste intsektuak pakean utzita»

«Erlezain kopurua %5 jaitsi zen 2012-13 kanpainen. Ikusi egin behar hemendik aurrera zer gertatzen den»

«Iaz eguraldiak paliza haundia eman zion liztorrari. Aurten gutxiago azaltzen ari dira»

dakariak hori esateko. «Lehenengo, feromona hori bilatu egin behar da, eta gero, feromona hori sintetizatu, guk erabili ahal izateko. Horrek beste hainbeste denbora eskatu lezake. Enpresaren batek hori lortzen badu, errentablea bada soilik aterako du merkatura...». Frantsesek urte asko daramazkete liztorra ikertzen, eta orain-

dik emaitzarik ez izatea esan-guratsua da Urkiolarentzat. «Posible da feromona hori lortu izatea, baina oraindik ez dute merkaturatu ezer».

Erlezain kopurua behera

Pixkanaka, erlezain kopurua behera dioa. Gipuzkoako Elkartek 500 bazkide inguru ditu, eta 2012-13 kanpainen %5

jaitsi omen zen kopurua. Hala dio Urkiolak, «bajak eta altak kontuan izanda, %5 jaitsi zen erlezain kopurua. Ikusi egin behar hemendik aurrera zer gertatzen den». Urte txarrena 2012a izan zen. Erlezain askok erleen %40 galdu zuen, eta dena galdutakoak era baziren. Panorama ikusita, askok utzi egin dituzte erleak, erremedio

baten zain. Kezkatuta dago lehendakaria, «adineko erlezain asko dago, eta nere kezka da, erremedioa bilatzen badugu ere, gero ez direla horiek berriaz erlezaintzan hasiko».

Espero ez ziren albiste onak

Dena ez da txarra ordea. Espero ez zena gertatu zen iaz, eta neurri haundi batean, egural-

«2010ean sartu zen penintsulan, eta dagoeneko zabaldu da Galizia eta Portugaleraino, eta Pirineoetan Kataluniaraino»

«Nafarroan batez ere Pirineoetan ari da zabaltzen, barru aldera ez dakit»

diaren kulpaz. Liztor asiati-koak egur batean esnatu ziren udaberrian, baina martxotik ekainera euria egin zuen, eta horrek sekulako meila egin zion. «Erlearentzat ere ez zen urte ona izan, hori egia da, baina liztorrari ere iaz paliza haundia eman zion eguraldiak. Udazkenean oso gutxi azaldu ziren, eta aurten ere gutxiago azaltzen ari dira», dio Urkiolak. Berak guztira 64 liztor harrapatu ditu udaberrian, eta Hernaniko beste erlazainak ere neurri horretan ari dira.

Beste datu esanguratsu bat izan litekeena: liztor asiaticoa (*Vespa velutina*) orain dela hilabete eta erdi inguru hasi omen zen ateratzen, eta martxo bukaerako euriek bete betean harrapatu dute. Horrelakorik ez zaio gertatu bertako liztorrari (*Vespa crabro*). Bertako liztorra oraintxe hasi da ateratzen, zer eguraldi egingo zuen tankera emanda bezala. Eguraldia izan ote liteke kanpoko liztorraren etsairik txarrena? Ikusteko dago.

Penintsulan zabaltzen

Bitartean, *Vespa velutina* zabaldu eta zabaldu ari da. Ikusgarria da ze nolako abiaduran konkistatu duen Europa. 2005 inguruan sartu zen Frantzia, 2010ean penintsulan, eta 2014-rako Galizia, Portugal, Katalunia eta abarrera iritsi da. Urkiolak 2011n esan zion Kronikari, errezeloa zuela liztor hau geratzeko etorri ote zen, eta hala dirudi zabalkundea ikusita, «2010ean sartu zen penintsulan, eta dagoeneko zabaldu da Galizia eta Portugaleraino, eta Pirineoetan Kataluniaraino. Bueno, garbi esateko, Kataluniara Olot-etik sartu da, eta orain Pirineoen lerroan behetik gora dator, Nafarroatik goitik behera dijoan bezala. Laister biek bat egingo dute, iada egin ez badute». ■



Liztorrak muturrean pintza gisako hortzak ditu, eta horrek zatitzen du erlea.

■ LIZTORRARI AURRE EGITEKO ERREMEDIORIK BILATU EZINDA...

«Liztorraren azala hain da gogorra, erleak ezin duela zulatu»

Erlea erremediorik bilatu ezinda dabil liztorrari aurre egiteko. Naturak ba ote du beste biderik oreka bat bilatzeko?

«HILTZEKO makina perfektua» da liztor asiaticoa, askoren ustez. Erlea baino azkarragoa, eta sendoagoa, eta arma indartsuagoak dauzkana. Erleak aurre egiten dio, baina ez dirudi ezer egiten dionik. Horren faltan, ba ote dauka naturak beste biderik oreka bat bilatzeko? Ba al du aurkaririk *Vespa velutina*? Eguraldia bera izan liteke aurkari bat, eta bertako liztorra *Vespa crabro* beste bat; Urkiolak dio, velutinak alde egiten diola crabroari.

«Ikusia daukat bost liztor asiatico erlauntza aurrean, eta bertako liztor bat iritsi, eta denek alde egiten»

Erlearen joerak ezagutzen...

Urkiolak bideoz grabatu ditu liztorra eta erlearen arteko borrokak, eta harrিতa dago, erleak ezin diola meilarik egin.

«Erleak ezin dio ezer egin. Liztorraren azala hain da gogorra, erleak ezin du zulatu. Aurre egiten diotenean, bat baino gehiago gainean jarrita ere, ezin diote eztenik sartu. Oso azal gogorra du».

Bideo batzuetan azaltzen da nola zenbait erle populaziok liztorra harrapatu, bildu, eta ito egiten duten, hegoei eraginda sortzen duten beroarekin. Erlezainen lehendakariak ez du gehiegi sinisten bero bidez liztorra itozteko formula hori,

«Interneten ikusi ditut irudiak, baina ez da *Vespa velutina* ageri. Beste liztor bati egiten diote hori, ez liztor asiaticoari. Gainera, liztor batentzako 200 erle igual behar dira, eta leher eginda geratzen dira».

'Crabro' eta 'velutina', bertakoa eta kanpoko

Hemen bada beste liztor bat, beti hemen egon dena baina orain gero eta gehiago ezagutzen ari garena. *Vespa crabro* dauka izen zientifikoa, hementxo liztorra da, eta liztor asiaticoa baino pixka bat haundiagoa da. Bertako liztorra agertzen denean, kanpoko liztorrak ospa egiten omen du, hori dio behintzat Urkiolak. «Ikusia daukat, bost liztor asiatico erlauntza aurrean, eta bertako liztor bat iritsi, eta denak alde egiten; bertakoak aldegin, eta berriz etortzen».

*Vespa crabro*ak, bertako liztorrak, kanpoko liztorraren joera igual iguala du. Erleak harrapatzen ditu, eta bere kabira eramaten. Aldea bat da: hemengo askoz urriagoa da kanpoko baino. Hemengoak kabi txikiagoak egiten ditu, eta horregatik, erlezainek ez dute antzeman orain arte.

Etsai naturalak, okila?

Hemengo liztorrak klabe batzuk eman ditzake. Kabi txikiagoak egiten ditu, eta eguraldiari hobeto erreparatzen dio, itxuraz. Horrez gain, kanpokoak errespetua dio. Etsaia ordea, ez da etsai naturala. Urkiolari galdetuta, Urkiolak dio akaso okil haundiak egin dezaiokeela kaltea liztor asiaticoari. Baina erleari ere ez ote dio egingo?

Hemen orain arte liztorra eta erlea orekan bizi izan dira, eta Asian ere bai, han ere bai baitira erleak, eta liztorrak. Ikusteko dago, oreka hori berriz ere iritsiko ote den gurera. Eguraldia, bertako liztorra, okil haundia, erleak berak bilatzen duen moduren bat... akaso hortik etorri liteke oreka natural bat, oraindik nondik nora joango den ez dakiguna. ■

■ UDALA

«Orain da garai onena kabiak suntsitzeko»

HERNANIKO Udalak protokoloa martxan jarria dauka liztor asiaticoren kabiak kentzeko. Kronikari adierazi diotenez, oraintxe da errazena liztor

kabiak suntsitzea, erreginak bakarrik ari direlako kabiak egiten, eta kabi primarioak edo txikiak direlako. Hiru kabi klase egiten dituzte liztorrek:

primarioak, sekundarioak, eta hirugarren mailakoak. Erregina bat hasi, kabi txiki bat egin, eta hortik langileak ateratzen ditu. Langile gutxi horiek biga-

rren kabia egingo dute, eta hortik ateratzen diren langile guztiek hirugarrena, haundiena, udazkenean ikusten diren horietakoa.

Norbaitek kabi txikiren bat ikusten badu, Udaltzaingora kaso egin behar du: 092.

Hernaniko Babes Zibiletik adierazi dutenez, aurten oso liztor gutxi ari dira jasotzen. Bertakoak ia bat ere ez, orain dela gutxi arte. Kanpokoak ere iazko aldean, gutxi. ■

☎ TELEFONAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) 943 336022 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

EGURALDIA **GAUR** Goizean zaparrada batzuk bota ditzake. Arratsaldean atertu eta ostarteak zabalduko dira. Temperatura, freskatzera: Min. 9° / Max. 15°
BIHAR Goiza lasaia joango da, eguzkia eta lainoak izango dira. Arratsaldean euria egitea espero da. Temperatura, antzeko: Min. 9° / Max. 15° (euskalmet)

MUSIKA



Urtero jokatzen da Euskadiko Txapelketa Gasteiz, Bilbo edo Donostiako Kontserbatorioan. Aurten 104 partehartzaile izan dira.

Eneko Sota, Josune Marin eta Jon Patxek saria, Euskadiko Musikari gazteen txapelketan

Sotak irabazi egin zuen Akordeoiko B mailan; Marinek bigarren saria, Harizko tresnen A mailan; eta Patxek ere bigarren saria, Perkusioko A mailan.

MUSIKARI gazteak ez dabilta makal Hernanin. Eneko Sotak, Josune Marinek eta Jon Patxek sari bana ekarri dute Bilbotik, Euskadiko Musikari Gazteen Txapelketatik. Apirila hasieran jokatu zen txapelketa, EAEko hiru kontserbatorioek antolatzen dutena. Sotak irabazi zuen Akordeoiko B mailako sari nagusia. Marinek bigarren saria lortu zuen, Harizko tresnen A mailan; eta Patxek ere bigarren saria, Perkusioko A mailan.

Hirurak dira Hernani Musika Eskolako ikasle ohiak, eta gaur egun ere musika ikasketa profesionaletan ari dira.

Sotak eta Patxek ere tankeran lehiatu behar izan dute, norbere musika instrumentuarekin. Guztira 12 modalitate izan dira, taldekakoak kenduta. Akordeoian dozena erdi partehartzaile izan dira, gutxigora-behera; perkusioan beste 7 inguru, eta gitarra, arpa eta sokazko instrumentuetan 10 partehartzaile inguru.

Urtero antolatzen dute txapelketa hau EAEko hiru kontserbatorioek. Txandaka egiten da, Donostian, Gasteizen, eta aurten Bilbon egin dute. Apirilaren 4an jokatu zuten txapelketa.



Josune Marinek hiru obra interpretatu zituen, Villalobos, Martin eta Sor-enak.

Musika Eskolako ikasle ohiak

Hernaniko Musika Eskolan hasi zituzten ikasketak hiru musikari gazteok. Bertan zenbait urte eginda, orain musika ikasketa profesionaletan ari dira: Eneko Sota eta Josune Marin Donostiako Francisco Escudero Musika Kontserbatorio Profesionalean; eta Jon Patxe Errenterriako Musikalen. II

IRAGARKI MERKEAK

Pixua alokatzen da zentroan, 4 gela, bi komun, sukaldia, egongela-jangela, 100m2. Erdigunean, altua eta eguzkitsua. Deitu: 699 49 22 35

Karabelen etxea salgai, 2 logela, dena berritua, kanporaldera. Bizitzera sartzeko prest. Deitu: 630 237 924

Kotxea salgai. Kia Ceed Sportwagon. 43.000 km, 115 CV. Beltza kolorekoa. Llantak, klimatizadorea, kruzero abiadura, remolkerako bola... 7 urte ebeko garantia. 10.500 €. Deitu: 649 20 90 58

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,.... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)